

5.5. INTERCONEXIÓN ENTRE DIFERENTES CENTROS
5.5. HAINBAT ZENTROREN ARTEKO INTERKONEXIOA



CONEXIÓN EN RED DE ORDENADORES [II]:
BENEFICIOS EN EL ÁMBITO EMPRESARIAL

KONEXIOA ORDENAGAILU SAREETAN [II]:
ENPRESARI EKARTZEN DIZKION ABANTAILAK

El origen de Internet parte de un principio elemental: interconectar ordenadores y sistemas informáticos situados en distintos puntos geográficos con el fin de compartir información. Este modelo, y los beneficios derivados de su aplicación, pueden trasladarse al mundo empresarial; "construyendo" redes de equipos internas (pertenecientes a una organización o empresa determinada) a través de la Red.

Internetek oinarrizko printzipio honetan du jatorria: leku berean ez dauden ordenagailuak eta sistema informatikoak elkarri konektatzea, informazioa partekatzeko xedez. Eredu hori, eta hori aplikatzeak ekartzen dituen onurak, enpresaren mundura eraman daitezke, eta barneko sareak (erakunde edo enpresa jakin bati dagozkionak) "eraiki", Sarearen bitartez.

En fichas anteriores (en especial, en la 3.1.), ya se han destacado los beneficios derivados de un entorno informático determinado -empresa- en el cual sea posible compartir entre distintos ordenadores desde carpetas con documentos, hasta periféricos tales como impresoras, unidades de CD... Esta misma lógica se puede aplicar a una escala más amplia o global, empleando una red de carácter público como Internet, para construir una red de ordenadores privada o propia de una organización en la que se reproduzca el comentado esquema de "colaboración".

El caso de "Modas LARRONDO" ayudará a comprender las particularidades y ventajas de interconectar equipos o centros localizados en espacios "distanciados":

Los distintos establecimientos de moda de esta cadena, reparados en cuatro localidades de Bizkaia, ofrecen cobertura a la actividad principal del negocio: venta minorista ("al detalle") de artículos textiles. En concreto, comercializan prendas juveniles (textiles exteriores) -masculinas y femeninas- de carácter general; es decir, en todas las tiendas se venden artículos como: camisas, jerséis, pantalones, faldas, camisetas, etc. Así, el público objetivo queda claramente definido: jóvenes de ambos sexos.

Aurreko fitxetan (3.1. fitxan, bereziki) azpimarratu dugu eremu informatiko jakin bateko -enpresa- hainbat ordenagailuren artean karpetak (agiriekin) eta periferikoak (inprimagailuak, CD unitateak...) partekatzen direnean hainbat abantaila lortzen direla. Logika hori bera eremu zabalago edo orokorragoetara eraman daiteke, eta izaera publikoa duen sare bat erabili, Internet adibidez, ordenagailu sare pribatu bat osatzeko edo aipatutako "lankidetzak" eskema horretan oinarritutako erakunde batean sare bat eraikitzeko.

"Modas LARRONDO" enpresaren adibidea baliagarria izango da "urrunduta" dauden ordenagailuak batetik, edo zentroak, bestetik, elkarri konektatzeak zer ezaugarri dituen eta zer abantaila ekartzen dituen ulertzeko.

Moda kate horrek lau denda ditu Bizkaiko lau herritan, eta horietan dago oinarrituta negozioaren jardura nagusia: hau da, ehungintzako produktuen xehekako salmenta. Gazteentzako jantziak saltzen dituzte (kanpoko jantziak) -emakumezkoentzat zein gizonezkoentzat-; hau da, denda horietan era honetako artikuluak saltzen dira: alkandorak, jertseak, galtzak, gonak, elastikoak, etab. Beraz, oso ondo definituta dago nori zuzendua den enpresa: gazteak, gizonezkoak zein emakumezkoak.

En cada una de las cuatro tiendas, los procesos de gestión y venta se controlan mediante una aplicación informática instalada en sus ordenadores (que también actúan como cajas registradoras). Sin embargo, como señala Xabier Larrondo –propietario y gerente–, los problemas más serios, aquéllos que complican el adecuado ajuste de los procedimientos del negocio, provienen –fundamentalmente– de la inexistencia de alguna herramienta informática que mejore las comunicaciones y posibilite una gestión integrada de los cuatro establecimientos.

Como muestra de dicha situación, cada tienda actúa de forma autónoma, pero los pedidos efectuados a las empresas proveedoras se reciben en un solo establecimiento (tienda-central); por lo que Xabier debe distribuirlos entre el resto. De este modo, la falta de centralización informática del stock provoca desfases: el pedido llega a la tienda proveniente de la tienda-central antes de que Xabier genere su correspondiente referencia (en los ordenadores de cada comercio, debe ejecutar la importación de los datos –talla, color,...– pertenecientes a las referencias que previamente ha generado en el equipo de la tienda-central: emplea un disquete para trasladarlo de un ordenador a otro).

Además, la limitada comunicación entre los comercios dificulta los procesos y compartir artículos. De esta forma, desde uno de los establecimientos no pueden conocer directamente los productos que tienen los otros (la aplicación software con la que cuentan no conecta los comercios en red). Esta situación impide aprovechar una de las ventajas inherentes a una cadena de establecimientos: configurar un almacén a partir de la suma de los propios de cada tienda-miembro, haciendo posible un stock más eficaz y eficiente. Sin olvidar que, para controlar las ventas y realizar la gestión del conjunto de establecimientos con los datos que le suministra la aplicación informática, Xabier tiene que efectuar tales operaciones de formar separada; sufriendo complicaciones significativas y errores continuos.

Definitivamente, no se efectúa un control riguroso del funcionamiento de las tiendas "LARRONDO"; es decir, aunque la mayoría de los procedimientos o trabajos realizados están respaldados permanentemente por alguna herramienta informática o método de registro eficaz, la gestión del stock y su distribución entre los comercios no se efectúan con la debida eficacia. Pese a que las tiendas cuentan con una aplicación específica, por su inadecuado ajuste a los flujos de trabajo del negocio, ésta no ofrece el escenario de trabajo óptimo.

Xabier, ante la identificación de las mencionadas carencias localizadas dentro del entorno de la empresa, se plantea como una acción prioritaria interconectar de alguna manera (él no sabe cómo) los establecimientos para que sea posible compartir datos y acceder al stock del resto desde cualquiera de las tiendas. Tras comentar sus intenciones a las empresas proveedoras del software que emplean las cuatro tiendas, le explican a Xabier que la aplicación también está diseñada para trabajar en red; es decir, para que puedan operar distintos ordenadores como miembros de una misma tienda o cadena y compartir datos entre ellos. Y que, dicha conexión en red, puede realizarse a través de Internet (permitiendo así la interconexión de los ordenadores de las cuatro tiendas).

Xabier no lo duda más y encarga a la empresa proveedora informática que se ocupe de efectuar la conexión vía Internet:

Denda bakoitzeko kudeaketa eta salmenta prozesuak bertako ordenagailuetan (kutxa erregistratzaile gisa ere erabiltzen dira) instalatu den aplikazio informatikoaren bitartez kontrolatzen dira. Hala eta guztiz ere, Xabier Larrondok –nagusi eta kudeatzaile denak– dion bezala, negozioan sortzen diren arazo larrienak, hau da, negozioaren prozedurak behar bezala doitzea eragozten dutenak, komunikazioa hobetuko duen eta lau denden kudeaketa bateratuko duen tresna informatikorik ez edukitzearen ondoriozkoak dira.

Adibide hau dugu egoera horren erakusgarri: denda guztiek era autonomoan jarduten dute, baina enpresa hornitzaileei egiten zaizkien eskaerak denda bakarrean jasotzen dira (denda-zentralean); eta Xabierrek banatu egin behar ditu beste dendetara. Era horretara, stock-a ez dagoenez baliabide informatiko bakarraren bitartez zentralizatuta, hainbat gora-behera sortzen dira: Xabierrek eskaerarentzat erreferentzia sortu aurretik iristen da eskaera denda-zentraletik eskaera egin duen dendara (denda-zentralean sortu dituen erreferentzietan buruzko datuak beste dendetako ordenagailuetara inportatu behar ditu –neurria, kolorea...–: denda bateko ordenagailutik beste denda bateko ordenagailura eramateko disketea erabiltzen du).

Horrez gainera, denden arteko komunikazioa mugatua denez, prozesuak zaildu egiten dira, eta baita produktuak partekatze-ko aukera ere. Era horretara, denda batean ez dakite beste dendetan zer produktu dituzten (instalatuta duten software aplikazioak ez ditu dendak sarean lotzen). Egoera horren ondorioz, katea ezin balia daiteke era horretako kate batek dituen abantailak: stock eraginkorragoa osatzea. Eta, bestalde, salmentak kontrolatzeko eta denda guztien kudeaketa egiteko aplikazio informatikoak ematen dituen datuen bitartez, Xabierrek bereizita egin behar ditu eragiketa horiek; ondorioz, arazo larriak eta akats ugari sortzen dira.

Laburbilduz, ez da "LARRONDO" denden funtzionamenduari buruzko kontrol zorrotzik egiten; alegia, prozedura edo lan gehienak tresna informatiko baten edo erregistro sistema eraginkor baten bitartez babesten badira ere, stock-aren kudeaketa eta katea osatzen duten denden arteko banaketa ez da behar bezain eraginkorra. Dendetan aplikazio berezi bat bada ere, ez da negozioaren lan fluxuetara behar bezala doitzen, eta ondorioz, aplikazio horiek ez dute lanerako inguru egokia eskaintzen.

Xabierrek enpresa barruko gabezia horiek identifikatu ondoren, lau dendak nolabait lotzea lehentasunezko zeregina dela ohartu da, era horretara, denda guztietako datuak partekatu ahal izango dira eta guztiek izango dute stock-era sarbidea. Xabierrek lau dendetan erabiltzen duten softwarearen hornitzaileari bere asmoen berri eman ondoren, haiek Xabierri azaldu diote aplikazio hori sarean lan egiteko diseinatua dela; hau da, hainbat ordenagailu denda bereko edo kate bereko kide balira bezala jarduteko eta horien artean datuak partekatze diseinatua dela. Eta sare horren konexioa Internet bidez egin daitekeela azaldu diote (beraz, lau dendetako ordenagailuak elkarri lotzeko aukera ematen du).

Xabierrek ez du zalantzarik egiten, eta hornitzaile informatikori agindu dio Internet bidezko konexioaz arduratzeko:

- Lehenbizi, Interneteko konexio iraunkorrak kontratatzen dira hiru dendetarako (Zentralak dagoeneko badu); ezinbesteko eskakizuna da hau.



- En primer lugar, como requerimiento ineludible, se contratan conexiones permanentes a Internet para tres de las tiendas (la Central ya tenía).
- Después, se modifica la configuración del programa en cada una de las tiendas; preparándolo para que trabaje en red junto con otros establecimientos.
- Finalmente, se dispone que la tienda central actúe también informáticamente como tal; es decir, que desde su aplicación puedan controlarse las operaciones efectuadas en el resto de tiendas, trasladar "virtualmente" el stock, insertar artículos,...

Con todo ello, se ha logrado salvar el obstáculo "geográfico" y desplegar un modelo que permite un elevado grado de integración informática entre los diversos establecimientos de la cadena "LARRONDO". Esta situación posibilita, además de unificar procesos y compartir información (vía red-Internet), ejecutar acciones y medidas como:

- Traspaso rápido y eficiente de artículos entre almacenes (tiendas).
- Eficacia en la logística interna de la empresa (estado y traslado del stock).
- Consulta en tiempo real de los diferentes stocks.
- Centralizar la gestión de los comercios. Por ejemplo, desde la tienda-central se generan todas las referencias una vez se ha recibido el pedido; traspasándose posteriormente por la red desde la aplicación informática al stock particular del resto.

En definitiva, las actuaciones llevadas a cabo: adaptación de la infraestructura informática y "conexiones", han permitido modificar el poco eficiente sistema de gestión de "Modas LARRONDO", adaptando la empresa a un modelo basado en procedimientos integrados y centralizados.

- Ondoren, denda guztietan programaren konfigurazioa aldatzen da; beste denda batzuekin sarean lan egiteko prestatzen da.
- Azkenik, zentrala informatikaren ikuspegitik zentral moduan jarduteko prestatzen da; hau da, bertako aplikazioetik gainerako dendetan egiten diren eragiketak kontrolatu daiteke, era horretara, stock-a aldatu egin daiteke, "era birtualean", artikulua erantsi daitezke,...

Era horretara, gainditu egin da oztopo "geografikoa", eta "LARRONDO" katea osatzen duten dendek artean integrazio informatiko handia lortzen da. Baliabide horren bitartez, prozesuak bateratzeaz eta informazioa partekatzeaz gainera (Internet sarearen bitartez), era honetako jarduerak eta neurriak har daitezke:

- Biltegi batetik bestera (dendak) artikulua azkar eta eraginkortasunez aldatzea.
- Enpresa barruko logistika eraginkorra (stock-aren egoera eta lekualdatzea).
- Stock-a zer egoeratan dagoen, denbora errealean kontsultatu ahal izateko.
- Dendekudeaketa zentralizatzea. Esate baterako, denda zentrallean sortzen dira erreferentzia guztiak eskaera jaso eta berehala; eta ondoren, aplikazio informatikotik gainerako dendek stockera eramaten da sarearen bitartez.

Honako hauek dira, beraz, egindako eragiketak: azpiegitura informatikoaren eta "konexioen" egokitzapenari esker, "Modas LARRONDO" enpresak zuen kudeaketa sistema eskasa aldatu egin da, eta prozedura bateratuetan eta zentralizatuetan oinarritua den eredura egokitu da enpresa.



Es común, encontrar empresas u organizaciones distribuidas en diferentes centros de trabajo u oficinas (en puntos geográficos distintos) que operan de forma autónoma o, expresado de otra forma, que no mantienen ningún tipo de comunicación realmente continua entre las "partes"; saliendo perjudicadas por un modelo poco integrado, caracterizado por cierta pérdida de eficacia (se complica la colaboración entre centros "separados") y procedimientos ineficientes (se requiere un mayor esfuerzo para lograr los objetivos).

La unión entre las soluciones informáticas y las posibilidades de comunicación/interconexión que ofrece Internet, se convierte en la solución a este escenario. Gracias a este "tándem", se establece un canal de comunicación que hace posible unificar los esfuerzos, compartir datos entre centros distantes, integrar procedimientos (ventas, stock, gestión de la clientela,...), etc. En consecuencia, da un impulso a la actividad de la empresa (incrementando las ventajas competitivas).

Askotan gertatu ohi da enpresa edo erakunde bat hainbat lanleku edo bulegotan bereizita egotea (gune geografiko desberdinetan); lanleku horiek era autonomoan funtzionatzen dute, edo beste era batera esanda, ez dute inolako komunikazio jarraiturik "atal" horien artean. Enpresa horiek hainbat kalte izaten dituzte ez delako eredu bateratua, eta eraginkortasuna galtzen dutelako ("bereizitako" zentroen arteko lankidetzaz zaildu egiten da) eta prozedura eragingabeak dituztelako (ahalegin handiagoa behar da helburuak lortzeko).

Internetek eskaintzen dituen irtenbide informatikoak eta komunikazio/interkonexioari dagozkionak dira egoera horren irtenbide egokiena. "Tandem" horri esker, komunikazio bide egokia ezartzen da, eta horri esker, ahaleginak bateratzen dira, elkarrengandik urrun dauden zentroen datuak partekatzen dira, prozedurak bateratzen dira (salmentak, stock-a, bezeroen kudeaketa...), etab. Ondorioz, bultzada izugarria ematen zaio enpresaren jarduerari (lehiakortasunerako abantailak ugalduz).